

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak 300 etxebizitza zaharberritzeko esku-hartze orokorreko bi proiektu abian jarriko ditu Azpilagañan eta San Jorgen (Iruña)

*Aurreikusitako inbertsioa 10 milioi eurokoa da, eta horietatik 3,5 milioi jarriko ditu Exekutiboak*

Asteazkena, 2018.eko irailak 5

Nafarroako Gobernuak abian jarriko ditu Iruñako Azpilagaña eta San Jorge auzoetan 300 etxebizitza zaharberritzeko esku-hartze orokorreko bi proiektu. Jabekideen erkidegoek ia 10 milioi euroko inbertsioa aurreikusi dute, eta horietatik 3,5 milioi inguru diruz lagunduko ditu Exekutiboak.

Bi jardueren ezaugarriei buruzko xehetasunak azaldu dizkie Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak gainerako kontseilariei gaurko Gobernu-bileran.

Aurreikusitako jardueren bidez bereziki eraikinen irisgarritasuna (igogailuak jartzea, eragozpenak kentzea) eta inguratzaile termikoa hobetu nahi dira. Inbertsioek bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko dute, energia aldetik ere aurrezteaz gain, faktura energetikoa murriztuaz eta, behar izanez gero, eskasia energetikoa arinduaz.

Bizilekuak birsortzeko esku-hartze orokorreko proiektuen helburua da finkatutako hiriko hainbat atari, etxadi edo zona birgaitzea, modu koordinatuan eta aurrez programatuta, modu horretan atari soil baten eremua gaintuaz. Horrela, eraikuntzako eta arkitekturako baliabide homogeenagoak eskaini nahi zaizkie (tratamendua, kalitateak eta amaierak) hiriko egituraren lotura estua duten etxadiei edo zonei eta eskala-ekonomiak lortu, ikuspegi ekonomikotik (batera lizitzatzeko aukera, kudeaketa-gastu gutxiago) nahiz ikuspegi administratibotik (denentzako espediente bat aurkezteko aukera, izapide bizkorragoa).

Esku-hartze orokorreko proiektuak onartzeko, proiektu arkitektonikoak aurkeztu beharko dira dagokion birgaitze-bulegoan eta behin-behineko kalifikazioaren eskaera (eta lorpena), horiek babesteko zaharberritzeko jarduera bezala.

Behin-behineko kalifikazioaren eskaera lau urteko epean egin beharko da esku-hartze orokorreko proiektua onartzen duen foru-aginduaren egunetik zenbatzen hasita. Lau urteko denboraldia beste lau urtez luzatu ahal izango da, erkidego onuradunak hala eskatuta.

Laguntza onenak, espedienteak izapidetzeko erraztasun handiena, esku-hartze orokorreko proiektuen onarpena kasu honetan bezala edo foru-laguntzak bateragarriak izatea IDAEk emandakoekin (Nafarroak, Asturiasko Printzerriarekin batera, hori lortu duen Komunitate bakarra izaten jarraitzen du), Nafarroan zaharberritzeko sektorea bultzatzen ari

diren arrazoiatariko batzuk dira.

2018ko lehen sei hilekoan, 10.971.249 euroko diru-laguntzak onartu dira 703 espedientetako 2.926 etxebizitza zaharberritzeko, 31 milioi eurotik gorako inbertsioarekin; horrela, 2014an birgaitutako etxebizitzak hiru aldiz biderkatuko dira.